

geología 17

Bizkaia

Domingo 7 de mayo 2017 / Igandea, 2017 (e)ko Maiatzak 7



Bilbao / Bilbo



La baldosa de Bilbao, no tan única
Bilboko harlauza, ez hain aparta

COORDINAN / KOORDINATZAILEAK:



ORGANIZAN / ANTOLATZAILEAK:



COLABORAN / KOLABORATZAILEAK:



FINANCIAN / FINANTZIATZAILEAK:



Financiado por la Fundación Española para la Ciencia y la Tecnología - Ministerio de Economía, Industria y Competitividad



GEOLODIA 17 BIZKAIA

Aurten Bilboko eraikuntza adierazgarrienen fatxadetan erabilitako arroka apaingarrietatik bideratutako ibilbide geourbanoa antolatu dizuegu. Bere abantaila nagusia naturan elkarrekin ikusi ezin daitezkeen arroka mota ezberdinak inguru geografiko berean ikustea da: adin eta ingurune geologiko ezberdinetako arroka sedimentarioak, tenperatura eta presio ezberdina jasan zuten arroka metamorfikoak, eta konposizio mineralogiko askotariko arroka igneoak. Horrez gain, sorpresa batzuk prestatu dizkizuegu: Arriaga Antzokiko hall nagusia ikusiko dugu, Plaza Biribilean dagoen Turismo Bulegoaren

barnealdeaz gozatuko dugu eta Arkeologia Museoa bisitatuko dugu, non inguruko arroka apaingarrien beste erabilera batzuk ikusteaz gain Aurrehistoriatik Erdi Arora bitarteko Bizkaiko biztanleriaren bizitza nola baldintzatu zuten ezagutu ahal izango da.

Noizbait hiriko eraikin eta kaleetetik makurtuta doan norbaitekin gurutzatu baldin bazerete, soilik bi aukera ditugu: zerbait erori zaio edo geologoa da. Harlauza bezala erabilitako arroka apaingarriek istorio ederrak kontatu ahal dizkigute, milioika urteko bidaiekin, baina hiri handiko eraikinen solairu eta hormak oharkabean gelditzen dira. Geolodia 17 Bizkaiko bidaia honetara gurekin etortzen baldin bazarete, zuen etxeko ataria edo zuen sukaldeko estalkia beste begi batzuekin begiratzen erakutsiko dizuegu. Izan ere, gure hiri-ondarea ezagutaraztea eta babestea, zein gizarteari hurbiltzea, geologoen lana da, hura erabiltzeko turistiko eta hezkuntza baliabide gisa.

SciGea enpresak, ikerketa geologiko eta dibulgazio zientifikoarentzako laguntza-zerbitzuak, UPV/EHUrekin elkarlanean, igandean, maiatzaren 7an egingo den Geolodia 17 Bizkaia ekitaldian parte hartzera gonbidatzen zaituzte. Geolodia publiko guztientzako jarduera libre eta irekia da. Geolodiaren helburu nagusiak parte hartzaileek "geologo begiekin" ingurunea ikustea eta prozesu geologikoak ulertzea, ondare geologikoa ezagutzea eta hau babesteko beharra ikustea eta geologoen ekarpenak eta lana ezagutzea dira. Geolodia, Espainiako Geologia Elkarte (SGE), Espainiako Geologia eta Meatze Institutu (IGME) eta Espainiako Lur Zientzien irakaskuntza Elkartek (AEPECT) koordinatzen du eta Espainiako Zientzia eta Teknologia fundazioak (FECYT) finantzatua dago.

Hona hemen kontuan hartu beharreko datu garrantzitsu batzuk:

Eguna: maiatzak 7, igandea

15 Minuturo txandakatutako 4 talde irtengo dira. Gehienez 50 pertsonako taldeak izango dira:

- 10:00 eta 10:30 gazteleraz

- 10:15 eta 10:45 euskeraz

Hizkuntza taldea eskariaren arabera alda daiteke.

Hasierako lekua: Arriaga Antzokiko Plaza

Ordua: 10:00-tan lehenengo taldea, 10:45-tan azkeneko taldea.

Ibilbidea: 6 kilometro

Ibileraren amaiera: Turismo Bulegoa (Plaza Biribila)

Aurreikusitako bukaera ordua: 14:00 lehenengo taldea, 14:45 azken taldea.

Izen ematea: servicios.scigea@gmail.com web gunean, hurrengo datuekin: izen eta abizenak, harremanetarako telefonoa eta pertsona kopurua.

Edozein pertsonentzako prestatuta dagoen ibilaldia da, ez da beharrezkoa ibilaldi luzeak egitera ohituta egotea. Hala ere, gomendagarria da arropa eta oinetako erosoak eramatea. Nahiz eta ibilbideak ez duen inolako arriskurik erakusten, bertaratuek jardueraren arriskuak bere gain hartzen dituzte eta ondorioz antolatzaileak ekitaldiaren garapenean gertatu daitezkeen edozein kaltetik salbuesten ditu. Beraz, era berean, adin txikikoak heldu batekin joatea derrigorrezkoa da. Kontuan izanik ibilbidea arratsaldera arte luzatu daitekeela bertaratutakoek janaria eta ura eramatea gomendatzen da. Hiriguneko ibilbide bat denez, bertaratutakoei jokabide eta bide-segurtasuneko oinarrizko arauak mantentzea eskatzen zaie.

Maiatzak 7, igandea, ausartu gurekin etortzera Geologia 17 Bizkaia eta Bilbon harlauza bat baino gehiago dagoela aurkituko duzu...

Informazio gehiago:

http://www.sociedadgeologica.es/divulgacion_geologia_activ2017.html

www.scigea.com

<https://youtu.be/qBlm1MTZjSs>

Irantzu, Blanca, Jone eta Amaia Geologia 17 Bizkaia antolatzaileak.